



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko irailaren 10a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Montserrat Roig

(Bartzelona, 1946-1991)

Lehen ikasketak Eixample auzoko kristau eskola batean egin ondoren, batxilergoa Sarrià-Sant Gervasi auzoko institutu batean egin zuen eta hamabost urte besterik ez zituela, 1961ean, Adrià Gual Antzerki Eskolan sartu zen. Filosofia eta Letren lizentzia eskuratu zuen 1968an eta doktoretza 1970ean Bartzelonako Unibertsitatean.

Gaztetandik parte hartu zuen ikasleen protesta ekintzetan, Bartzelonan ikasle mugimenduak indar handia izan baitzuen frankismoaren azken urteetako borrokan. Unibertsitate ikasketak egin zituen garaian Força Socialista Federal talde politikoko kide izan zen, baina alderdia desegin zenean, PSUCen sartu zen, karrera amaitu orduko.

1970ean, literaturgintzan sartu zen buru-belarri eta PSUC alderdia utzi zuen. Alabaina, ostera afiliatu zen alderdian terrorismoaren aurkako legeriaonartu zenean, 1975ean, intelektualen bilkura eta hitzaldi ugaritan parte hartu zuen, eta PSUCeko hautagai izan zen Espainiako Gorteetarako 1977ko hauteskundeetan, Bartzelonak hautesbarrutian.

Gaztelaniako irakurle izan zen ikasturte batez, 1972-1973an, Bristoleko Unibertsitatean. Ordurako, 1971n, lehen aitortpena jaso zuen, *Victor Català* saria, *Molta roba i poc sabó... i tan neta que la volen* narrazio bildumarekin. Ordutik aurrera, literatura hartu nahi izan zuen lanbide eta ogibidetzat; eleberri sail bati ekiten dio, besteak beste *Ramona, adéu* (1972), edo *El temps de les cireres* (1977) lanak sortu zituenak, emakumeen hiru belaunaldi dituen protagonista. Bereziki bigarren obra horrek harrera ezin hobe izan zuen irakurleen nahiz kritikarien artean; hain zuzen, Sant Jordi saria jaso zuen 1976an. Frankismoa atzean utzi eta Katalunian gizarte berri bat eraikitzeko desioaz eta itxaropenaz mintzo da Roig.

Nabarmentzekoa da kazetari gisa egin zuen lana, alderdi eta hedabide askotarikoak landu baitzituen. Esparru horretara ekarri zituen, baita ere, borroka feministaren aldeko deialdian, batez ere *El Feminisme* (1984) lanarekin, eta oroimen historikoa berreskuratzeko grina, *Digues que m'estimes encara que sigui mentida* (1991) lanarekin. Hedabidetan argitaratutako elkarrizketa sail luzeak argitaratu zituen zenbait aldizkaritan, (Serra d'Or, Orifloma, Jano eta Destino), irakurleen artean arrakasta handikoak, gerora bilduma batean elkartu zituenak, *Retrats paral·lels* (1975-1976) izenburuz.

Oihartzun handiko lan bat argitaratu zuen 1977an, *Els catalans als camps nazis* izenburuaz, katalanen bizi izandako lekukotza lazgarrien ikerketa bilduma.

1982an *Mi viaje al bloqueo* lana argitaratu zuen gaztelaniaz Moskuko setioari buruz. Hiru urte geroago, 1985ean, Roigek katalanez kaleratu zuen *L'agulla daurada*, setioaren narrazio pertsonal bat, hurrengo urtean, 1986an, Kataluniako Literatura Sari Nazionala irabazi zuena.

Bere pentsamendu eta jokabide feministaren funtsa *L'hora violeta* (1980) eleberrian bildu zuen. Handik aurrera, bere liburuek beste norabide bat hartzen dute: *L'òpera quotidiana* (1982), *La veu melodiosa* (1987) eta *El cant de la joventut* (1989) ipuin bilduma. Argitaratutako azken lana, *Digues que m'estimes encara que sigui mentida* (1991), bere testamentu literariotzat jotzen da. Montserrat Roig Katalanezko Idazleen Elkarteko kide izan zen, eta zuzendaritzako kide 1989-1990 bitarte. Bartzelonan hil zen, 1991ko azaroaren 10ean, bularreko minbiziaz.

Gerezi-denbora



Natàlia Miralpeix, liburu honetako, protagonista, bere hirira itzuli da, 1974ko Bartzelonara, Frantzia eta Ingalaterran hamabi urtez bizi eta gero. Astebete besterik ez da igaroko istorioa hasi eta bukatzen den arte, eta, tarte horretan, Natàliak aurrez aurre izanen ditu bere familiaren iragana eta oraina, borborka ari den hiri batean, iraultza sexual eta politiko bete-betean, Francoren heriotza hur-hurrean dela. Familia-kronika bat, emakumeen ahotsak gidari, aldatzen ari den gizarte baten iraganaz, orainaz eta geroaz gogoeta egiteko gonbita eginez. Ramona, adeurekin hasi eta *L'hora violeta*ekin amaitu zen eleberri-ziklo bateko bigarrena da.

Montserrat Roigen argitalpenak euskaraz

Gerezi-denbora (1977) **N ROI**

Kritikak esandakoak

“...Trilogia bateko bigarren alea da Gerezi-denbora. Eleberrian Miralpeix eta Ventura Claret familiak agerrarazten ditu atzera ere Roigek, burgesia katalanaren bi eredu. Miralpeixarren alaba Natalia da protagonista, Hamabi urte atzerrian ibili ondoren bere jaioterri Bartzelonara itzulia frankismoaren azken hats odoltsuetan, Puig Antich hil berritan. Iritsi eta berehala, ezer ez eta aldi berean den-dena aldatu delako sentsazioa izango du Nataliak. Hura baliatuko du idazleak aingura gisa, iraganaren zama astuna eta iraganaren ziurgabetasuna azaleratzeko, bi familien kronikaren bitartez. Gerrak eta gerraondoko isiltasunak blaitzen du Miralpeix familia. Damuz eta tristuraz betetako putzu sakon batean hondoratuta dago Joan, Nataliaren aita, Judit emaztearen heriotzaz geroztik; alkoholetan itotzen ditu saminak Joanen arreba Patricia, garai batean loriatsuak izandako baxera eta altzariei begira. Aitzitik, gurasoak iraganaren osinean itoak egonagatik, aurrerabide neoliberalaren isla da Lluís, Nataliaren neba. Natalia bera, porrot politikoaren eta deserrotzearen arteko uretan trabatua dago. Azkenik, iristear den garai berriaren irudi litzateke Marius, Joan Miralpeix eta Silvia Claretin semea.

Zehar estilo librea aski ongi menperatzen du Roigek eleberrian zehar, narratzailearen ikuspuntua jauzika doala pertsonaia batetik bestera. Nataliak oinarri lana egiten badu ere, beste pertsonaia batzuen ahotsa ere ageri da, hala nola Patricia, Silvia edota Joan Miralpeix bera. Narrazioa oroitzapenen bidetik lerratzen da sarritan, eleberrian iraganak duen garrantziaren erakusle. Bat-batean egiten du Roigek jauzi iraganeko pasarteetara, pertsonaien ahotsari jazarriko balitzaizkio bezala. Idazkerari dagokionez, deskribapenetan abilezia eta pertsonaien karakterizazioan dohaina erakusten du Roigek. Orobat gorputzak eta sexuak berebiziko presentzia dute hainbat eszenatan eta horiek agertzeko modua, islatutako gizartearen giro astunean txertatuta, azpimarratzekoa iruditu zait. Indar handikoak dira eszenok, Silvia eta bere lagunaren etxeko pasadizoa, kasurako. Roigen idazkeran, baina, laburtasun edo zorrotzasunerako joera handiagoa hartu dut faltan, eszena zenbait behar baino gehiago korapilatzen direla uste baitut. Beste horrenbeste pertsonaien ugaritasuna dela-eta. Haatik, narratzaile bikaina da Roig, eta zorionekoa euskal irakurlea hura euskaraz gozatu ahal izateagatik.”

Asier Urkiza / Berria, 2024-05-05

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Montserrat_Roig

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8955>